



AMAPOLA DEL CAMINO

COORDINADORA NAVARRA DE PUEBLOS POR LA MEMORIA

OROIMENAREN ALDEKO HERRIEN KOORDINAKUNDE NAFARRA

BIDEKO MITXINGORRIA

"BIDEKO MITXINGORRIA" OROIMENAREN ALDEKO HERRIEN KOORDINAKUNDE NAFARRAK ARESOKO UDALARI AURKEZTEN DION MOZIOA, MOLA ETA SANJURJOREN GORPUZKINAK LEKUZ ALDATZEKO ETA FRANKISMOAREN APOLOGIA SALATZEKO.

"Oroimenaren aldeko Herrien koordinakundea" ekimenean parte hartzen dugunok, indarrean dagoen legeria (Oroimen Historikoari buruzko Legea, Nafarroako Ikurrei buruzko Legea eta 2013ko azaroko Oroimen Historikoari buruzko Foru Legea) behin eta berriz urratzen dela ikusirik, gure kezka eta ezinegona adierazi nahi dugu. Hori dela eta:

- Aresoko Udalera jo dugu, bertako udal taldeen bitartez, gogora ekartzeko Nafarroan oraindik frankismoaren gorespena eta apologia egiten dela. Hain zuzen, frankismoaren erregimenaren eta haren erantzuleen zigorgabetasuna gogorarazten digun apologia. Denbora gehiegi pasa da, Demokrazia eta legezko Errepublikaren gobernua defendatu zutenek, eta berauen ondorengook, gure bizitzetan eta inguruetan kolpezale eta hiltzaileen presentziaren ezarpena jasaten segi dezagun.

KONTUAN HARTURIK:

- "Gurutzearen Zaldunak" kofradiako ekitaldiak, gaur egun ere, kriptan egiten dituztela, eta kripa hau, zenbait soto bezala, Elizarena dela.
- Uztailaren 19arekin, kolpisten altxamendua eta kriptan lurperatuta daudenak gogoratu eta goraiatzeko, elizkizun bat egiten dela urtero. Lurperatutakoaren artean, Sanjurjo eta Mola jeneral kolpistak daude.
- Gaur egun ondoko lege hauek indarrean daudela: 52/2007 Legea, abenduaren 26koa, Oroimen Historikoari buruzkoa, eta 33/2013 Foru Legea, azaroaren 26koa, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa.
- Salatzen ditugun ekitaldi hauek kolpe militarren eraildakoak eta biktima oro iraintzen dituztela, baita berauen senitatekoak eta, oro har, nafar guztiak ere.
- "Hildakoen monumentoa" delakoaren kriptan egiten duten ospakizun hau terrorismoaren apologia hutsa dela, apologiatzat krimena edo hiltzaileak goratzea hartzen bada behintzat.
- Aipatutako ekitaldiak kolpismoaren bortizkeria eta krimenak goraiatzeko egiten direla, eta ez daukatela zerikusirik gure errespetua merezi duten erlijioarekin eta fedearekin.
- Gizartearen gehiengoa frankismoaren kontrakoa izan eta frankismoaren sinbologia kentzearen aldekoa dela.
- Frankismoaren sinbologia ken dezatela eskatzeko eskubidea dugula, ez legeak agintzen duelako bakarrik; baizik eta, eta batez ere, gizartearen gehiengoak halaxe eskatzen

duelako.

Orain arte azaldutakoa aintzat harturik, eskatzen dugu ondoren zehazten diren erabakiak har daitezela.

ARTZAPEZPIKUTZARI ONDOKOA ESKATU NAHI DIOGU:

- "Hildakoen monumentu" izeneko kriptan (bertan Mola eta Sanjurjo jeneral kolpisten gorpuzkinak gordetzen dira) galaraz dadin 1936ko altxamendu kolpistari lotutako edozein ospakizun egitea, nahiz erlijiosoa izan, nahiz beste mota batekoa izan.

- Kriptan dauden jeneralen gorpuzkinak leku pribatu batera eramateko.

- Kripta horretan dauden aipamen, grabatu eta altxamendu militarra gogorarazten duen oro bertatik ken daitezela.

- Salatutako ekitaldiak egiten jarraitzen den bitartean, galaraz dakiola Gurutzearen Zaldun boluntarioen kofradiari kripta hori erabiltzea.

LABURBILDUZ:

Erakundeetako ordezkariak haxe galdatzen diegu: gerra eta errepresioaren biktimen eskubidea izanik, hau da, Egia, Justizia eta Ordaina izateko eskubidea, erabaki hauek bere egin ditzatela.

“Bideko Mitxingorria” Oroimenaren aldeko Herrien Koordinakunde Nafarra.

Areson, 2015eko maiatzaren 22an.